

I. ERANSKINA
ARLOAREN EDO IRAKASGAIAREN URTEKO PROGRAMAZIO DIDAKTIKOA
EGITEKO TXANTILLOIA
ANEXO I
PLANTILLA PARA LA ELABORACIÓN DE LA PROGRAMACIÓN DIDÁCTICA
ANUAL DE ÁREA O MATERIA

2018/19rteko/ikasturteko programazio didaktikoa
Programación didáctica anual/de curso 2018/19

ikastetxea: <i>centro:</i>	IES URIBEKOSTA BHI	kodea: <i>código:</i>	015143
etapa: <i>etapa:</i>	DBH	zikloa/maila: <i>ciclo/nivel:</i>	3
arloan/irakasgaia: <i>área / materia:</i>	BIOLOGIA ETA GEOLOGIA		
osatutako arloak/irakasgaiak <i>materias integradas/ áreas</i>	Hikuntzak, matematika eta fisika -kimika		
diziplina barruko oinarrizko kompetentzia elkartuak <i>competencias disciplinares básicas asociadas</i>	Hizkuntza- eta literatura-komunikaziorako kompetentzia. Gizarterako eta herritartasunerako kompetentzia Matematikarako kompetentzia Zientziarako kompetentzia		
irakasleak: <i>profesorado:</i>	Naiara Elorriaga/ Begoña Barcena	ikasturtea: <i>curso:</i>	2018/19

Zeharkako kompetentziak / *Competencias transversales:*

1. Ahozko komunikaziorako, ahozkoa ez den komunikaziorako eta komunikazio digitalerako gaitasuna.
2. Ikasten ikasteko eta pentsatzen ikasteko gaitasuna.
3. Elkarrekin bizitzeko gaitasuna.
4. Ekimenerako eta izpiritu ekintzailerako gaitasuna.
5. Izaten ikasteko gaitasuna.

helburuak <i>objetivos</i>	ebaluazio-irizpideak <i>criterios de evaluación</i>
1. Gizakiaren organismoari buruzko ezagutza zientifikoa erabiltzea, norberaren gorputzaren funtzionamendua nahiz osasuntsu egotea ahalbidetzen duten baldintzak azalduz, horren bidez osasuna zaintzeko ohiturak garatzeko eta norberaren nahiz komunitatearen ongizatea hobetzeko.	1. Izaki bizidunen egitura- eta funtzio-unitatea bereiztea. 2. Osasun eta gaixotasun kontzeptuen esanahiak oinarri hartuta, haiek baldintzatzen dituzten faktoreak identifikatzea. 3. Ohitura eta bizi-estilo osasungarriak izatearen garrantzia balioestea, nutrizioan parte hartzen duten organoek, aparatuek eta sistemek behar bezala funtziona dezaten, eta adibideen eta egoera praktikoen bidez azaltzea.

<p>2. Ekosistemen funtzionamenduari buruzko ezagutza zientifikoa erabiltzea, haietan gertatzen diren interakzioak azalduz, eta ekosistemen oreka eta hura aldatzen duten faktoreak deskribatuz, horren bidez natura balioesteko eta kudeatzeko nahiz hartaz gozatzeko.</p> <p>3. Gai zientifikoei buruzko informazioa lortzea zenbait iturritatik, barnean hartuta informazioaren teknologiak, kontuan hartuta gai zientifikoei buruzko lanak funtsatzeko eta bideratzeko baliagarritasuna, eta gai horiei buruz nork bere jarrerak hartzea, funtsatuta eta ikuspegi kritikoz.</p> <p>4. Zientziei buruzko informazioa duten mezuak modu aktiboan eta kritikoan interpretatzea, ahozko nahiz idatzizko hizkuntza zuzen erabiliz.</p> <p>5. Errealitatea azaltzeko eskemak egitea, kontzeptu, printzipio, estrategia, balio eta jarrera zientifikoak baliatuz, naturako fenomeno nagusiak interpretatzeko, eta gure gizarteko garapen eta aplikazio zientifiko eta teknologiko garrantzitsuenak ikuspegi kritikoz aztertze.</p> <p>6. Emakume zientzilarien aurkikuntzak ezagutza zientifikoak izan dituen garrantzia ulertzeko eta balioesteko.</p>	<p>4. Ohartzea zer ohitura eta bizi-estilo osasungarri dauden lotuta gizakiaren erlazio- eta lokomozio-funtzioekin, hurbileko ingurunekeo testuinguruan sortutako egoeren azterketa abiapuntu hartuta.</p> <p>5. Gizakiaren sexualitatearen eta ugalketaren alderdi nagusien berri jakitea, eta jakitea zer higie-neohitura izan behar diren eta zer prebentzio-neurri hartu behar diren sexu-transmisioko gaixotasunei aurrea hartzeko.</p> <p>6. Erliebe formak sortzen dituzten kausak aztertzea, forma horiek modelatzen dituzten kanpoko prozesu geologikoekin lotuz. Klimaren eta arroken ezaugarrien eragina.</p> <p>7. Erliebe forma bereizgarri batzuk aztertzea, Lurreko barne-dinamikaren agerpenekin lotuz</p> <p>8. Gizakiaren esku-hartzeak paisaiaren eta erliebearen modelaketan eta eraldaketan izan duen garrantziaz ohartzea, eta horren ondorioei buruz ikertzea.</p> <p>9. Inguruko ekosistema bati buruzko ikerketa soilak egitea, osagaiak eta desorekak eragiten dituzten faktoreak identifikatuz, eta aintzat hartzea ekosistemak babestearen eta kontserbatzearen garrantzia. Ekosistema baten osagai biotikoak eta abiotikoak adierazten ditu. Ekosistema bateko maila trofikoak bereizi eta grafikoki adierazten ditu.</p> <p>10. Hiztegi zientifikoak zuzen erabiltzea, bere mailarako egokia den testuinguru zehatz batean adierazpenak egitean.</p> <p>11. Bere iritzia eratztea, adierazpenak zehaztasunez egitea, eta problema-egoerei buruzko argudioak ematea, informazio zientifikoak bilatuz, hautatuz eta interpretatuz.</p>
---	--

EDUKIEN SEKUENTZIA [denbora-tarteka, unitate didaktikoak, proiektuka, ikaskuntza-nukleoka edo beste moduren batera antolatuta...].

SECUENCIACIÓN DE CONTENIDOS [organización en períodos, unidades didácticas, proyectos, núcleos de aprendizaje...].

1. Ebaluazioa

- Gizakia eta Osasuna
 - Giza elikadura
 - Digestio eta arnasketa funtzioak
- Arazo egoera : IZENBURUA: "Haurren malnutrizioa"

2. Ebaluazioa

- Zirkulazio funtzioa eta iraitz aparatua
- Nerbio funtzioa eta funtzio endokrinoa.
- Zentzumen perzepzioa eta lokomozio funtzioa
- Ugalketa funtzioa

3. Ebaluazioa

- Lurraren barne energia
- Lurreko erliebea nola eratzen den.
- Ekosistemak

Ikerketa proiektua; taldeka eta ondoko helburu hauekin:

Arazo egoera IZENBURUA : "Haurren malnutrizioa" izango da .Lan zientifikoak berezko dituen trebetasunak eta abileziak planeatu, aplikatu eta integratzea.

- Hipotesiak egin eta kontrastatzea esperimentazio edo behaketaren bidez eta arrazoiketaren bidez.
- Askotariko informazio iturriak erabili eta bereiztea, eta erabakiak hartzea haiei buruz eta haiek lortzeko erabilitako metodoei buruz.
- Banakako eta taldekako lana baloratu eta errespetatzea eta hartan parte hartzea.
- Egindako ikerketa proiektua jendaurrean azaldu eta defendatzea.

METODOLOGIA [edukien antolaketa, jarduera motak, baliabide didaktikoak, ikasleen taldekatzeak, espazioen eta denboren antolaketa, irakasleen eta ikasleen eginkizuna... ikuspegi inklusibo batetik].

METODOLOGÍA [organización de contenidos, tipo de actividades, recursos didácticos, agrupamiento del alumnado, organización de espacios y tiempos, papel del profesorado y el alumnado... desde una perspectiva inclusiva].

Liburua : Biologia eta Geologia DBH 3. Ibaizabal

- Lan kooperatiboa eta elkar - bizitza bultzatzeagatik, ahalik eta gehien taldeka aritzea.
- Gaiaren helburua ikasleei aurkeztea.
- Ikasleek gaiari buruzko aurrezagueratik abiapuntutzat hartzea.
- Irakaslearen gaiaren azalpen orokorra.
- Testu liburu eta liburu digitala erabiliz, liburuko informazioa aztertu eta ulertu , ariketak egin eta zuzendu.
- Ikaslearen koadernoari jarraitasuna ematea.
- Eguneroko bizitzan oinarrituriko gertaerak, klasean agertu diren edukiekin erlazionatzeko lanak proposatzea.
- Ahozko aurkezpenak zein idatzizko txostenak lantzea.
- Ikasteko teknikak, hala nola, eskemak eta mapa konzeptualak klasean lantzea.
- Irteeretan egindako praktika lanari buruz banakako zein taldeko lana egin eta aurkeztu.
- Aniztasunaren balioa klasean egunerokotasunean praktika eramatea, denon arteko errespetua bermatuz.

Gure Hobekuntza Planean eta Hizkuntza Proiektuan adierazten den bezala, irakurmena lantzeko berenberegiko atazak egingo dira. Ataza horiek prestatzeko formakuntza lan saio batzuk antolatuko dira eta bertan landutakoa ebaluazioen zehar ikasgeletan gauzatuko da. **BALIABIDEAK:**

Artikuluak, Bideoak , Classroom

<http://www.e-vocacion.es/site/idioma>

<http://biozientzia.blogspot.com.es/>

http://ntic.educacion.es/v5/web/jovenes/ciencias_naturales/

- <http://zientzia.eus/>

- **Agenda 21:** Kontsumoaren kudeaketa arduratsua bultzatu eta ikastetxe-ingurunearen alde lan egiteko konpromisoa baloratuko da.

Hezkidetzeta (Aniztasuna): Sexu eta identitate aniztasunarekiko errespetua eskatu eta baloratuko da. Hezkuntza komunitatean ikasle guztien parte hartzea bultzatuko da.

Irakurketa Plana: Arloko testu espezifikoak ulertzeko jarduerak landuko dira, ikaskuntza jardunaren oinarritzko edukia izan dadin

HTB: Gure Hobekuntza Planean eta Hizkuntza Proiektua adierazten den bezala, irakurmena lantzeko berenberegiko atazak egingo dira.. Halaber, idatzizko testuak zuzentzeko mintegi guztien artean adostutako txantiloia erabiliko da.

IKT: Gure ikasleek bere garapenerako behar dituzten gaitasun digitalak eskuratzeko informazioa bilatu, lortu, prozesatu eta komunikatu beharko dute (informazio hori jakintza bilakatzen).

Normalizazioa: Euskararen erabilera bultzatzeko ekimenak eta jarduerak landuko ditugu. Hezkuntza komunitateko kide guztien arteko euskararen erabilera sustatzen, zaintzen, indartzen eta erabiltzen.

Bizikasi : "Arloko ekintzetan , hezkuntza komunitateko kide guztien arteko harreman positiboak eta elkar bizitza osasungarria eraikitzen lagunduko da.

<p>EBALUAZIO-TRESNAK [ahozko eta idatzizko probak, galdetegiak, banakako eta taldeko lanak, behaketa-eskalak, kontrol-zerrendak, ikasgelako koadernoak, portfolioak, kontratu didaktikoa...]</p> <p>INSTRUMENTOS DE EVALUACIÓN [pruebas orales y escritas, cuestionarios, trabajos individuales y en grupo, escalas de observación, listas de control, cuaderno de aula, portafolio, contrato didáctico...].</p>	<p>KALIFIKAZIO-IRIZPIDEAK [ebaluazio-tresna bakoitzaren pisua eta balioa]</p> <p>CRITERIOS DE CALIFICACIÓN [peso y valor de cada instrumento de evaluación].</p>
<p>Idatzizko konzeptuen frogak egongo dira ebaluazioko. Hauek klasean egindako edota zuzendutako ariketen antzekoak izango dira, eta batzuk klasean azaldutako teoriaren inguruan, bai teorikoak bai teoriaren aplikazio praktikoak.</p> <p>Bestelako lanak kontuan izango dira; koadernoak, irteeratako lanak, albisteen iruzkinak, talde - lanak, ahozko zein idatzizko aurkezpenak.</p> <p>Baita ere, etxerako lana egunero eramatea, arreta eta jakinmina adieraztea.</p> <p>Ikasleen portaera ere baloratuko dugu ezinbestekotzat jotzen baitugu errespetuzko portaera pertsona guztiekin.</p>	<p>a. Ebaluapenean zehar egiten diren azterketen batez besteko %70 (egindako frogen media egiteko 3,5 izango da azterketa guztietan).</p> <p>Kontroletan zuzenketan hainbat puntu kontuan hartuko dira hala nola:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Galderen garapenaren planteamenduaren eta justifikazioaren zuzentasuna. - Oinarritzko konzeptuen azalpena eta haien aplikazio zuzena. - Hizkuntza zientifikoa erabiltzea <p>b. Koadernoak (apunteak hartuta, ikasgaiaren laburpenak eta eskemak eginda, ariketak zuzenduta, antolamendua eta garbitasuna) , klaseko lana, etxerako lana, laborategiko txostenak, eskatutako lanak, %20.</p> <p>c. Jarrera, puntualtasuna, klasean parte aktiboa hartzea, elkarbizitzarako arauak errespetatzea, arreta eta jakinmina adieraztea %10.</p> <p>Batez bestekoa b eta c , ataetik lortutako balioak izango dira: b (1) eta c (0,5) puntuak.</p>

EBALUAZIOAREN ONDORIOAK [indartzeko eta zabaltzeko neurriak, antolamendu-egokitzapenak eta egokitzapen metodologikoak, emaitzen analisia, plangintza didaktikoaren berrikuspena, errekupeazio-sistema...].

CONSECUENCIAS DE LA EVALUACIÓN [medidas de refuerzo y ampliación, adaptaciones organizativas y metodológicas, análisis de resultados, revisión de la planificación didáctica, sistema de recuperación...].

Ebaluazioren bat ez gainditzekotan:

- **Konzeptuen berreskurapena** emandako konzeptuen froga idatzi berri batez egingo dugu. Froga honen ariketak ebaluazioaren azterketaren antzekoak izanik, atal guztiekin. Nota gainditzeko 5.
- **Bestelako lanak berreskuratzeko** ikasleak egin ez duena edo gaizki egin duena berriro egiteko epe bat izango du.
- **Portaera** edo jarrera berreskuratzeko hurrengo ebaluazioaren portaera - jarrera hobetzen gaindituko da.

Ikasturtean zehar berreskurapenen bitartez ebaluazioren bat gainditzen ez ba da, ikasleek oraindik ez - ohiko frogetan izango du gainditzeko beste aukera bat. Ez - ohiko froga horretan urte osoan zehar emandako edukiak izango dira.

Pendienteak DBH3-ko Biologia-Geologia gainditzeko ohiko deialdian, PIRE(modu egokian) aurkeztu behar dute eta pendienteentzako ohiko azterketa (urriaren lehengo astean)gainditu (4puntu 10etik). Edo PIRE aurkeztu eta dagokien ikasmilako irakasgaiaren ebaluaketaren bat onartu. Aparteko deialdian zera egin behar dute :a) Eskatutako lanari buruzko ekainaren azken astean egingo den pendienteentzako aparteko azterketa gainditu (5puntu 10etik)b) dagokion ikasmilako irakasgaia aparteko gainditu.

OHARRAK / OBSERVACIONES

--

ARAZO EGOERA BATETIK ABIATUTA UNITATE DIDAKTIKO BAT PROGRAMATZEKO TXANTILLOIA

Arloa: BIOLOGIA ETA GEOLOGIA
Gaia: DIGESTIO APARATUA ETA DIETA
Maila: DBH3
Arazo-egoera: <ul style="list-style-type: none">• Haurren malnutrizioa eguneroko arazoa da Hirugarren Munduko herrialdeetan, eta haurtzaroko ohiko gaixotasunak izateko arrazoi nagusia izaten da herrialde horietan.• Malnutrizioa dietan esnekirik ez hartzearen eraginez sor daiteke. Hala ere, arazo kulturek ere eragina izan dezakete, kultura batzuetan haurrei dieta begetariano zorrotzak ezartzen baitzaizkie, eta horren ondorioz ez baitute ez arrainik ez D bitaminan aberatsa den beste elikagairik jaten.• Batzuetan gurasoek eguzki-izpietatik gehiegi babesten dituzte seme-alabak, eta eguzkitako krema ematen diete azalean etengabe. Horrek galarazi egiten du izpi ultramoreek beren funtzioa betetzea: elikagaiekin hartzen dugun D bitamina aktibatzea, alegia.• Errakitismoa ez da soilik arazo estetikoak –haurrak hanka okerrak izatea–, hortzeria osatzeko prozesuari ere eragiten dio, eta gainera, kaltzio gutxiko hezurak askoz errazago hautsi daitezke.
Helburua: haurtzaroko malnutrizioak eragindako honen sintomak eta sendabideak ezagutzea.
Eginkizuna: Nola aurkeztu: Ahozko aurkezpena egingo dute eta guztien artean eztaibada. Nola egin: 4-5 laguneko taldetan. Iraupena: 4 saio
Helburu didaktikoak: <ul style="list-style-type: none">• Hezurretako kaltzioa. Kaltzioa, kaltzio karbonato eta kaltzio fosfato forman dagoena, hezurren osagai normala da, eta gogortasuna eta presioarekiko erresistentzia ematen die. Hezurretako kaltzio kantitatea txikia denean, hezurrek deformatzeko arriskua izaten dute, gorputzaren pisuaren ondorioz.• D bitamina eta kaltzitonina. Dietan hartzen dugun kaltzioa hezurretan

pilatzeako beharrezkoak dira D bitamina eta kaltzitonina hormona. Hormona hori organismoak berak sortzen du, eta hormonon orekan arazoren bat egonez gero urritu egin daiteke. Bestalde, D bitamina elikagaietatik eskuratzen dugunez, eguneroko dieta kalitatezkoa izatea oso garrantzitsua da.

- **D bitamina eta dieta.** D bitamina bereziki ugaria da esnekietan, arrainean, giblean eta koloredun barazkietan (tomatea, piperra, azenarioa, erremolatxa...).

Dieta begetariano zorrotzek eta esneki gutxiko dietek D bitaminaren eskasia sor dezakete.

- **D bitamina eta eguzkia.** Landare-jatorriko elikagaietatik lortzen dugun D bitamina forma ez-aktiboan egoten da, eta aurrekari kimiko hori bitamina aktibo bihurtzeko, beharrezkoa da izpi ultramoreen eragina jasotzea. Horregatik, eguzkia neurrian hartzea oso gomendagarria da organismoan D bitamina kantitate egokia izateko.

Jarraibideak:

- Arazo-egoera aurkeztu eta lan-plana adostu.
- Zein dira errakitismoaren sintomak?
- Zerk eragiten du?
- Zer biztanle-talderi eragiten dio?
- Zer proposatuko zenuke gaixotasun hori desagerrarazteko?
- Informazioa bildu, sailkatu eta modu kritikoan interpretatu.
- Ebidentzia zientifikoa oinarri hartuta aholkatzen duen txostena idatzi, hartutako erabakia modu arrazoituan argudiatuz.
- Prozesua eta ikasitakoa ebaluatu (koebaluazioa eta autoebaluazioa).

Ikerketa-iturriak:

- MedlinePlus. Medikuntzari eta osasunari buruzko webgunea, artikulua interesgarriak eta gaixotasunak diagnostikatzeko laburpen baliagarriak dituena.

Gako-hitzak: *MedlinePlus, raquitismo.*

- NBEren webgunea. Unicefek herrialde azpigaratuetako haurren malnutrizioari buruz emandako datuak biltzen

dituzten berrien atalak ditu.

Gako-hitzak: *ONU, raquitismo.*

- FAOren dokumentuak.

Gako-hitzak: *FAO, raquitismo.*